




Ambito de la
Administración Foral

Baztango Udala 1995



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBARA

AURKIBIDEA

I. Sarrera	3
II. Helburua	4
III. Norainoak eta mugak	5
IV. Iritzia	6
V. Egoera finantzieroak	9
VI. Konklusio eta gomendioak	18



I. Sarrera

Baztango Bailara eta Unibertsitatea jatorri historiko eta egitura eta arautegi berezia dituen Nafarroako toki entitatea da. Nafarroako udalei dagokien legedi orokorra ezezik, "Baztango Bailara eta Unibertsitatearen ordenantza, barruti eta ormaldeak" ere indarrean daude.

Udalaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Udal bakarra da, hamalau herrik osaturik.
- Herri bakoitzak kargodun bat aukeratzen du bi urtetarako. Aukeraketa herri-batzarrean egiten da.
- Baztango herriak lau kuarteletan daude banaturik. Kargodun bakoitzak kuartel bakoitzeko batzarkide bat aukeratzen du lau urtetarako.
- Batzar orokorra zinegotziek, kargodunek eta batzarkideek osatzen dute alkatearen presidentziapean. Alkateak deituriko ezohiko bilera alde batera utzita, lau bilera egiten ditu urtean.

Lau bilera hauek Pizkunde Pazkoaren bigarren egunean, Espiritu Santuaren Pazkoaren bigarren egunean, irailaren 29an (San Migel) eta Gabonetako bigarren egunean egiten dira.

Aipaturiko ordenantzak lur komunalei daude loturik: egur mozketak, landaketak eta urraketak, iralekuen probetxamendua, borden eraikuntza, aziendaren bazka, etab.

Baztango Udala bi erakunde autonomotan dago ordezkaturik: Francisco Joaquin de Iriarte Zaharretxea eta Baztango Ikastola. Erregerena eta Kintoen Mankomunitateetan ere parte hartzen du. Aipatu mankomunitateak izen bereko mendien kudeaketaz arduratzen dira.

1995ean Udalaren aurrekontua 1.079 milioikoa zen, Francisco Joaquin de Iriarte Zaharretxearena 145 milioi eta Baztango Ikastolarena 52 milioi. Aipatu bi erakunde autonomoen aurrekontuak ez daude udalaren aurrekontuan sarturik.

Baztango Udalaren plantila organikoaren arabera, Udalak 56 lanpostu ditu, Zaharretxeak 48 eta Ikastolak 16.

Nafarroako Kontuen Ganbarak 1987ko kontuak fiskalizatu zituen. Txostena 1989ko otsailaren 6ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (6.zenbakia).



II. Helburua

Nafarroako toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Baztango Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzieroa eta Hogar San Jose Zaharretxea erakunde autonomoarena eta baita 1995eko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatzeari ekin zaio.

Azterturiko udal erakundeari ezar dakioken legeriaren barruan honakoak biltzen dira funtsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea toki erregimenaren oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzkoa eta hori garatzeko erregelamendua, 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arauteria.

Martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa, 1995ean onartu bazen ere, ez du eraginik izan arautzen dituen gai gehienetan 1996ko urtarrilerarte ez baitzen indarrean sartu.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1995eko aurrekontuaren garapena eta burutzea.
- b) 1995eko abenduaren 31an zegoen ondare egoera azaleraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera eta baita egoera finantzieroa ere.
- d) Udalaren iharduera ekonomiko eta finantzieroa legezkotasuna hatsapenen arabera garatzen den ala ez.
- e) Kontuen Ganbarak aurreko fiskalizazio txostenean (1987koa) eskainiriko gomendioak zenbaterainoko bete diren.

III. Norainoak eta mugak

Txostenean dirusarrerak, gastuak eta Udalaren ondarea eta egoera finantzieroa aztertu dira. Antolaketa, kontabilitatea eta barne kontrolako alderdi batzuk ere jorratu dira beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik.

Bi erakunde autonomo daude: Francisco Joaquin de Iriarte Zaharretxea eta Baztango Ikastola. Aipatu erakundeen kontuak ez dira Udalarenaren kontuetan sartzen eta 1995ean egoera kontable bakarizatutako dirusarrera eta gastuen egoera aurkezten dute.

Gure lanak izan dituen mugak honakoaren ondorio dira:

- Ondare kontabilitatea, lehen aldiz 1995ean erabili zelako.
- Ondasun inbentarioa ez dago eguneratuta.
- Zordunek onartu ez dituzten kobratu gabeko saldo batzuk.

Udalaren kudeaketa hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen dira txostenean.

Zelaiko lana 1996ko abenduan eta 1997ko urtarrilean egin zen.

Baztango udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

IV Iritzia

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan Baztango Udalaren gastu eta dirusarreraren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona, 1995eko abenduaren 31ko egoera balantzea eta ekitaldiko ekonomi eta ondarearen emaitza kontua.

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu gure azterketan.

Azterketaren ondorioz, horra gure iritzia:

IV.1. Udala

IV.1.1. Aurrekontuaren kitapenari buruzkoan

Gure iritziz, 1995eko aurrekontuaren kitapenak ekitaldiko aurrekontu emaitza, kobratzeke dauden eskubideak, ordaintzeke dauden beharrak eta Baztango Udalak 1995eko abenduaren 31an zuen diruzaintzako gerakina egoki islatzen ditu alderdi nagusietan eta hori dena indarrean dagoen legediaren arabera egin da. Hala ere, badira ondoren azaltzen ditugun salbuespen batzuk:

- Eraginketen mozketetan akats batzuk daude aurreko urteko gastuak sartu eta ekitaldian izandako dirusarrerara eta gastuak ez baitira islatu. Dena den, akats horien eragina ez da oso esanguratsua.

- 1995eko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakin egoeran ez da kontuan hartu kobratzen zailak diren 43 milioi, zordunei dagozkienak.

IV.1.2 Ondare eta egoera finantzieroaren eta emaitza ekonomikoen isla

Udalak kontabilitate publikoaren plan orokorrarekin batera 1995ean programa informatikoa jarri du martxan. 1995eko abenduaren 31ko egoera balantzea eta egun horretan amaituriko ekitaldiko emaitza kontua, ekonomikoa eta ondareari dagokiona aurkeztu ditu. Aipatu egoera finantzeroei buruzko iritzia ematerik ez dugu azterketak izan dituen mugak direla medio. Izan ere, Udalak ez ditu ibilguten balio kontableak behar bezala erregistraturik, Udalaren ondarezerrenda ere ez dago gaurkotua eta ezin izan dugu berdinkatu zordun batek duen saldoa eta harek aitortzen duena.

Gainera, ondare-kontabilitatea 1995ean martxan jarri denez, egoera finantzieroak egiterakoan erabili beharreko politika kontableak ez daude finkaturik. Hau dela eta, badira txostenean aipatzen diren akats batzuk honako gaiok loturik: jasotako dirulaguntzen erregistroa, eragiketen mozketak, zordunen saldoen berreskurapena eta kre-

ditu-entitateekiko eta entitate publikoekiko zorren aurkezpen eta sailkapena.

IV.1.3 Legezketasuna

Baztango iharduera ekonomiko-finantzieroa, oro har, legezketasun hatsapenak errespetatuz egiten da. Dena den, prozeduretan txostenean aipatzen diren arau-hauste batzuk antzeman ditugu, batez ere obren eta langileriaren kontratazioan.

IV.1.4 Egoera finantzieroa

1995ean aurrezki garbia positiboa izan da eta zorpetze maila zorpetze mugaren barruan dago. Kreditu berririk ez da kontzertatu eta inbertsio garrantzitsuak burutu dira. Horregatik, ekitaldiaren amaieran udalak defizita zuen. Baztango Udalaren egoera finantzieroari dagokionez, 1995eko abenduaren 31an diruzaintzako gerakin negatiboa zuen eta zor handia (finantzaketa iraunkorra).

IV.1.5 Aurreko txostenaren gomendioen jarraipena

Kontuen Ganbarak aurreko txostenean eskainitako gomendio gehienak kontutan hartu dira. Alde horretatik, aipatzekoa da kudeaketa kontablea informatizatu egin dela neurri handi batean, ondasun-inbentarioa egina dagoela eta ondare-kontabilitatea ere martxan jarri dela. Kutxa bidez eginiko diru mugimenduak ere nabarmen gutxitu dira, orain nominen ordainketa eta zerga eta tasen kobrantza gehienak banku bidez egiten baitira.

IV.1.6. Konklusioa

Auditoretza-iritziaren osagarri eta konklusio orokor gisa Baztango Udalak Kontuen Ganbarak aurreko txostenean eskainiriko gomendioak martxan jartzeko egin duen ahalegina azpimarratu nahi dugu. Halaber, kontuan hartu dugu 1995ean, alde batetik, inbertsio handiak egin zirela eta, bertzetik, kontabilitatearen prozedurak aldatu egin zirela. Honek guztiak administrazio-ihardueretan eragin nabarmena izan du ohiko lana handitu eta zaildu duelako.

Bertzalde, Kontuen Ganbarak Baztango Udalaren egoera finantzieroa larria dela azpimarratu nahi du. Beraz, inbertsio garrantzitsuak egiten jarraitu nahi duenez, oreka finantzieroa lortzeko plana behar-ko luke.

IV.2. Erakunde Autonomoak

Udalak 1995eko maiatzaren 23ko osoko bilkuran Francisco Joaquin de Iriarte Zaharretxearen eta Baztango Ikastolaren aurrekontuak onartu zituen, 145 eta 52 milioikoak, hurrenez hurren. Dena den,

ez da aipatu erakunde autonomoen aurrekontu kitapenaren azterketarik burutu eta, beraz, kontabilitate publikoaren legediak agindutakoari muzin egiten zaio.

Erakunde autonomoen kontuek ez dute sektore publikoaren araudi kontablea errespetatzen, egoera kontabletzat 1995eko dirusarrera eta gastu egoera ihardueraka bertzerik ez baita aurkezten.

IV.2.1. Francisco Joaquin de Iriarte Jubilatu eta Zaharretxea

Francisco Joaquin de Iriarte jubilatu eta zaharretxearen 1995eko dirusarrera eta gastuen egoerak urtean eginiko eragiketak islatzen ditu. Hala ere, finantza entitateetan epe finkoan jarritako dirutzak 1995eko abenduaren 31an sortututako 5 milioiko korrituak ez dira erregistratu. Halaber, 1994ko abenduaren 31an sortu eta 1995ean ko-bratutako 5 milioiko korrituak 1995eko dirusarreratzat daude erregistraturik.

IV.2.2. Baztango Ikastola

Baztango ikastolaren 1995eko dirusarrera eta gastuen egoerak urtean eginiko eragiketak ongi islatzen ditu, baina badira salbuespen batzuk:

- Aseguru sozialak, PFEZ eta aparteko ordainsarietarako eta langileriaren oporretarako hornikuntzei dagozkien 6 milioiko gastuak, 1995ean sortu eta 1996an ordaindutakoak, ez daude erregistraturik. Hala ere, 1994an sortu eta 1995ean ordaindutako kontzeptu eta zenbateko berberak dituzten gastuak erregistratu egin dira.

- Indarrean dauden estatutuen arabera, urteko defizita Baztango Udalak eta ikasleen guraso elkarteak finantzatuko dute. Baztango Udalak 1996an 3,9 milioiko dirutza eman dio ikastolari 1995eko abenduaren 31an pilatutako defizitaren zati bat finantzatzeko baina ikastolak ez du kontzeptu honengatik dirusarrerik erregistratu.

Aipatu erakunde autonomoek 1995eko abenduaren 31an zuten finantza eta ondare egoerari buruzko iritzia ematerik ez dugu, ez batak eta ez bertzeak ez baitute egoera-balantzerik aurkezten.


Zaharretxeak aurkezturiko 1995eko abenduaren 31ko inbertsio finantzieroei buruzko azterketak kotizazio ofizialeko akzioak eta ordaintxartelak baloratzeko erosketa kostuaren irizpide kontablea erabili beharrean, merkatu-prezioa (burtsaren kotizazioa) eta errenboltso baioa erabiltzen ditu. Halaber, aipatzekoa da aipatu datan epe finkoan jarritako diruak sorturiko interesak ez direla erregistratu.

V. Egoera Finantziarioak

Baztango Udalak 1995ean aurkezten dituen egoera finantziarioak honakoak dira:

- 1995eko ekitaldiko aurrekontu kitapenari dagozkion dirusarrera eta gastuen egoera.
- Diruzaintzako gerakinaren egoera 1995eko abenduaren 31an.
- Gastuen betetze funtzional-ekonomikoa.
- Egoera-balantzea 1995eko abenduaren 31an.
- Urteko emaitza, ekonomiko eta ondare kontua, 1995eko abenduaren 31an.

8



BAZTANGO UDALAREN 1995eko GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZEA

Konzeptua	Hasierako prebisioa	Aldaketak Gora (Behera)	Behin betiko prebisioa	Onarturiko betebeharrak	Aginduriko ordainketak	Kitaturiko ordainketak	Betebeharraren %	Onarturiko osoaren %
Langilerien gastuak	193.720.500	229.000	193.949.500	192.625.384	192.625.384	186.098.471	6.526.913	99
Ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuak	150.839.740	248.000	151.087.740	143.012.083	143.012.083	106.171.852	36.840.231	95
Gastu finantzieroak	41.450.000	0	41.450.000	39.769.878	39.769.878	39.767.939	1.939	96
Ohiko transferentziak	40.457.360	(477.000)	39.980.360	34.521.932	34.521.932	27.683.385	6.838.547	86
Inbertsio errealak	637.250.000	11.795.000	649.045.000	259.410.425	259.410.425	158.278.083	101.132.342	40
Aktibo finantzieroak	250.000	0	250.000	0	0	0	0	0
Pasibo finantzieroak	14.832.000	0	14.832.000	14.785.166	14.785.166	12.689.566	2.095.600	100
95eko gastuak guztira	1.078.799.600	11.795.000	1.090.594.600	684.124.868	684.124.868	530.689.296	153.435.572	63

BAZTANGO UDALAREN 1995eko DIRUSARREREN AURREKONTUAREN BETETZEA

Konzeptua	Hasierako prebisioa	Aldaketak Gora (Behera)	Behin betiko prebisioa	Onarturiko eskubideak	Kitaturiko Idirubiketa	Kobratzeke	Betebeharraren %	Onarturiko osoaren %
Zerga zuzenak	70.975.000	0	70.975.000	72.451.656	67.091.208	5.360.448	102	11
Zeharkako zergak	30.300.000	0	30.300.000	32.287.723	29.353.023	2.934.700	107	5
Tasak eta bertze dirusarrerak	74.835.000	0	74.835.000	84.916.708	65.174.242	19.742.466	113	13
Ohiko transferentziak	257.425.000	0	257.425.000	251.624.896	237.159.103	14.465.793	98	40
Ondare eta komunaren dirusarrerak	33.740.000	0	33.740.000	34.358.785	24.767.507	9.591.278	102	5
Inbertsio errealen besterenganatzea	142.100.000	0	142.100.000	21.939.940	21.939.940	0	15	4
Kapital transferentziak	389.910.000	8.795.000	398.705.000	130.570.566	98.824.831	31.745.735	33	21
Aktibo finantzieroak	9.514.600	0	9.514.600	9.417.568	5.247.204	4.170.364	99	1
Pasibo finantzieroak	70.000.000	3.000.000	73.000.000	0	0	0	0	0
95eko dirusarrerak guztira	1.078.799.600	11.795.000	1.090.594.600	637.567.842	549.557.058	88.010.784	58	100

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA 1995eko ABENDUAREN 31an

	Pezetak
Zordunak kobratzeke:	
Dirusarrera-aurrekontuetakoak. Ohiko aurrekontua	88.010.784
Dirusarrera-aurrekontuetakoak. Itxitako aurrekontuak	60.504.734
Aurrekontutik kanpoko bertze eragiketen ondorioz	9.117.354
Kobratzen zailak diren saldoak	0
	157.632.872
Hartzekodunak kobratzeke:	
Gastu aurrekontuetakoak. Ohiko aurrekontua	(153.435.572)
Gastu aurrekontuetakoak. Itxitako aurrekontuak	(65.560.554)
Aurrekontutik kanpoko eragiketen ondorioz	(38.363.129)
	(257.359.255)
Diruzaintzako fondo likidoak	(4.665.024)
Diruzaintzako gerakina	(104.391.407)

Diruzaintzako fondo likidoak negatiboak dira banaketa kontuaren saldo hartzekoduna hartzen baitute.

GASTUEN BETETZE FUNTZIONAL-EKONOMIKOA

Kontzeptua	Betetzea guztira	Langileria gastuak	Ohiko eta zerbitzuen ondasunak	Gastu finantzarioak	Ohiko transferentziak	Inbertsio errealak	Kapital transferentziak	Pasibo finantzarioak
Zor publikoa	54.555.044		39.769.878					14.785.166
Gobernu organoak	3.787.990	3.452.928	335.062					
Administrazio orokorra	100.908.440	66.448.411	28.019.943		266.554	6.173.532		
Administrazio orokorreko zerbitzuen gastuak	375.913				375.913			
Laguntza soziala	13.308.511	10.759.217	1.549.294		1.000.000			
Pentsio eta bertze prestazioak	83.898.983	81.603.110	2.295.873					
Ospital, Asistentzia eta Osasun Zentroak	3.105.490	1.254.665	1.850.825					
Osasun arloko ekitaldiak	1.355.958		1.355.958					
Hezkuntza	31.494.126	11.106.407	15.622.997		4.764.722			
Hirigintza eta arkitektura	157.395.147		38.528.729			118.866.418		
Saneamendu, hornikuntza eta ur banaketa	82.262.819		3.381.752		3.662.436	75.218.631		
Zaborrak tratamendu eta garbiketa	22.083.357		21.239.677			843.680		
Markatuak	12.815.260	1.359.812	3.724.925			7.730.523		
Kontsumitzailearen informazio bulegoa	275.000				275.000			
Kulturaren bultzapena	27.580.803	3.354.616	9.817.862		6.763.209	7.645.116		
Kultur ekitaldiak eta atxialdia	26.042.982	3.280.090	13.232.002		5.784.622	3.746.268		
Jaiak	8.982.360				8.982.360			
Ingunugiroaren hobekuntza	42.699.983	6.604.842	1.038.151			35.056.990		
Administrazio finantzieroa	7.530.553	3.401.286				4.129.267		
Energia	660.404		660.404					
Turismoa	2.825.452		178.336		2.647.116			
Transferentziak administrazio publikoari	180.293		180.293					
Guztira	684.124.868	192.625.384	143.012.083	39.769.878	34.521.932	259.410.425	0	14.785.166


EGOERA BALANTZEA 1995eko ABENDUAREN 31an

AKTIBOA	Pezetak
Ibilgetu ukigarria	2.592.255.708
Ibilgetu ez ukigarria	5.637.557
Erabilpen orokorrerako ibilgetua	52.164.739
Finantza-ibilgetua	88.000.112
	2.738.058.116
Zordunak	157.632.872
Kontu finantzieroak	(4.665.024)
	152.967.848
Guztira	2.891.025.964
PASIBOA	Pezetak
Ondare eta erreserbak	1.989.886.124
Ekitaldiaren emaitza	51.332.059
	2.041.218.183
Dirulaguntzak	130.570.566
Epe luzeko zorrak	461.877.960
Agindutako ordainketen hartzekodunak	218.996.126
Entitate publikoak	18.356.269
Bertze hartzekodunak	20.006.860
	257.359.255
Guztira	2.891.025.964

Kontu finantzieroen atalean dagoen banaketa-kontuan 5.550.989 pezetako saldo hartzekoduna dago.

1995eko ABENDUAREN 31an AMAITURIKO EKITALDIKO EMAITZA EKONOMIKO ETA ONDARE KONTUA

GASTUAK	PeZETAK
Langileria gastuak	194.321.042
Finantza-gastuak	39.769.878
Zergak	2.476.166
Lan, hornikuntza eta kanpo zerbitzuak	139.538.903
Gizarte laguntzak	1.079.446
Ohiko transferentzia	34.521.932
95eko gastuak guztira	411.707.367
DIRUSARRERAK	
	Pezetak
Salmentak	43.549.861
Jabego-errentak	40.611.001
Produzioari loturiko zergak	101.740.029
Ohiko zergak	32.287.723
Bertze dirusarrerak	5.826.258
Ohiko transferentziak	251.624.896
95eko dirusarrerak guztira	475.639.768
Ohikoen emaitza	63.932.401
Aurreko ekitaldietako emaitza	(12.600.342)
ETEKIN GORDINA GUZTIRA	51.332.059



FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE ZAHARRETXEAREN 1995eko EKITALDIKO GASTU ETA DIRUSARREREN EGOERA

	Pezetak
Esplotazio dirusarrerak:	
Bailarako herrien arteko dirubilketa	261.375
Egonaldi eta pentsioa	132.426.962
Emaizta eta uzkontzak	4.434.724
Interes eta kupoiak	8.697.455
San Anton eguneko zozketa	1.610.725
Bertze batzuk	803.236
Guztira	148.234.477
Esplotakuntza gastuak:	
Elikadura	16.548.125
Ura	371.412
Argindarra	3.318.088
Mantenimendu	2.889.020
Erregaiak	4.406.093
Instalazioak	1.346.360
Ikuztegia eta garbiketa	2.112.677
Bulegoko materiala	70.050
Aseguru-polizak	365.212
Arropa eta tresnak	892.825
Telefonoa	135.424
Altzariak eta ekipamendua	19.000
Soldatak	81.114.870
Gizarte aseguruak	30.769.744
Bertzelako gastuak	2.411.799
Guztira	146.770.699
Ekitaldiko superabita (*)	1.463.778

(*) Ekitaldiko superabita inbertsio finantzieroetarako erabiltzen da.

**FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE ZAHARRETXEAREN INBERTSIO FINANTZIEROEN
EGOERA 1995eko ABENDUAREN 31an**

	Pezetak
Kotizazio ofizialeko akzioak	23.451.930
Balio errenta finkodunak	
• Ordaintzekoak	2.000.000
• Epe finkoko inposizioak	113.531.215
Guztira	138.983.145

Kotizazio ofizialeko akzioen balorazioa 1995eko abenduaren 31ko kotizazioaren arabera egiten da.

Ordaintzekoen balorazioa errenboltsu prezioaren arabera egiten da.

Epe finkoko inposizioak suskripzio kostuaren arabera baloratzen dira. Epe finkoko inposizioen interesak kobratzean erregistratzen dira ekitaldia ixtean sorturiko interesengatiko zenbatekorik islatu gabe.



**BAZTANGO IKASTOLAK AURKEZTURIKO 1995eko DIRUSARRE-
RA ETA GASTUEN EGOERA**

	Pezetak
Dirusarrerak:	
Dirulaguntzak	50.462.366
Bertze dirusarrerak	26.271
Guztira	50.488.637
Gastuak:	
Soldatak	29.584.784
Gizarte aseguruak	14.161.143
P.F.E.Z.	5.180.394
Eskolako materiala	874.633
Telefonia	130.773
Gestoria eta aseguruak	239.268
Garraioa	98.150
Jan-Gela	237.311
Interes eta komisioak	87.886
Bertzelakoak	673.897
Guztira	51.268.239
Ekitaldiko defizita	(779.602)

Oharra: 1955eko dirusarrera eta gastuen egoerarekin batera, Baztango Ikastolak 1995eko abenduaren 31ko bankuen saldoa aurkezten du. Data horretan bankuen kontuetan 1.391.936 pezetako saldo hartzekodun gordina zegoen.

VI. Konklusio eta gomendioak

Ondoren, Udalaren antolaketa eta barne kontrola eta, beraz, kudeaketa hobetzeko, egokitzat jotzen ditugun gomendio orokorrak biltzen ditugu eta baita txostenaren konklusio nagusiak ere.

VI.1 Aurrekontuaren betetzearen inguruko iruzkin nagusiak

IV. atalean iritziari buruz esandakoarekin bat etorritz, aurrekontuaren betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu.

- 1995ean indarrean izan zen aurrekontua 1995eko maiatzaren 23an onartu zen. Behin publiko egin eta gero, kexarik sortu ez zenez, behin betikoz onartu zen. 1995eko aurrekontuaren betetzea, udalaren kontuekin batera, 1996ko uztailaren 23ko osoko bilkuran onartu zen.

- Sortzapen eta dirusarrera eta gastuen korrelazio irizpideak ez aplikatzeagatik, 1995ean ez dira zenbatu ondoren kapituluka zehazten ditugun dirusarrera eta gastuak.

Kontzeptua	Kapitulua	Milioi pezetak
Gastuak:		
Zerbitzu eta ohiko ondasunen erosketak	2	6
Inbertsio errealak	6	7
Guztira		13
Dirusarrerak:		
Tasak eta bertze dirusarrerak	3	4
Guztira		4

Aurrekontuaren betetzeari buruzko koadroetan ikus daitekeenez (egoera finantzieroen V atala) 1995eko ekitaldia 46,5 milioiko superabitekin itxi zen. Onarturiko betebeharrak 684 milioikoak ziren eta onarturiko eskubideak, berriz, 637,5 milioi.

Gastuen aurrekontuaren betetze maila %63 izan da. Kapitularik garrantzitsuenak inbertsio errealak, langileriaren gastuak eta ohiko ondasun eta zerbitzuen gastuak izan dira. Berauen zenbatekoak, hurrenez hurren, 259, 193 eta 143 milioi dira, aurrekontuaren betetzearen %38, 28 eta 21.

1995eko dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila orokorra %58 izan da. Kapitularik nagusiak ohiko transferentziak eta kapital transferentziak dira, 237 eta 98 milioi hurrenez hurren, onarturiko dirusarreraren %40 eta %21.

Gastuen betetze maila murrizaren arrazoia da aurreikusitako inbertsio errealen ehuneko 43 bertzerik ez direla egin.

Dirusarrerren aurrekontuaren betetze maila ehuneko 58 izan da 1995ean. Kapitulu nagusiak ohiko transferentziak eta kapital transferentziak dira, 237 eta 98 milioi, hurrenez hurren. Onarturiko dirusarrerren ehuneko 40 eta 21 dira, hurrenez hurren.

Dirusarrerren betetze maila murrizaren arrazoia da aurreikusitako kapital transferentzien ehuneko 33 bertzerik ez direla jaso inbertsio errealak atzeratu eta ondasun desjabetzeak aurreikusitakoak baino murrizagoak izan direlako.

Udalaren gastu eta dirusarrerren aurrekontu kitapenak ez ditu Francisco Javier Iriarte Zaharretxearen eta Baztango Ikastolaren gastu eta dirusarrerak biltzen.

Aurreko lerroaldeotan esandakoarekin bat etorritz, hauxe gomen-datu nahi dugu:

- Udalaren behin betiko aurrekontua onartzerakoan indarrean dagoen legeriak agindurikoa betetzea, aurrekontua kudeaketarako oinarritzko tresnatzat izan dadin.
- Indarrean dagoen legeriari jarraituz, Udalaren aurrekontuetan eta berauen kitapenean erakunde autonomoen dirusarrera eta gastuak biltzea.

V.I.2 Baztango Udalaren egoera ekonomikoari buruzko azterketa (1995eko abenduaren 31an)

Ondoren, 1995eko abenduaren 31ko Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera aurkezten dugu, laburbilduta:

	Milioi pezetak
Kobratzeke dauden eskubide argiak	157
Ordaintzeke dauden betebeharrak	(257)
Diruzaintzako fondo likidoak	(4)
Diruzaintzako gerakina	(104)

Kobratzeke dauden eskubideen artean badira batzuk, bi urtetik gorako aintzintasuna dutenak, kobratzeko zailak direnak. Dirutza hori 43 milioikoa izan daiteke eta kobratuko den argi ez egon arren, kon-tuan hartu da.

Dirutza hori kenduz gero, diruzaintzako gerakinaren egoera negati-boa litzateke 147 milioitan.

1995eko aurrekontuaren kitapenak diruzaintzako gerakin negati-boa islatzen duenez, 6/90 Foru Legearen 291 artikulua eta 2/95 Foru Legearen 230 artikulua agindutakoari jarraituz, Udalak onarturiko hurrengo aurrekontuan gerakina orekatzeko beharra zuen, gastuak gutxituz edo dirusarreretan egin beharreko aldaketak eginez. Hala ere, Udalak ez du 1996ko aurrekontuan hori egin.

Ondoren, 1994 eta 1995eko ekitaldietarako Udalaren gastu eta dirusarreraren betetzearen arteko azterketa konparatiboa aurkezten du-gu (milioi pezetatan).

DIRUSARREREN AURREKONTUAREN BETETZEA
(Onarturiko eskubideak)

Kontzeptua	1994	1995	Aldaketaren %
Zuzeneko zergak	68	72	6
Zeharkako zergak	28	32	14
Tasak eta bertze dirusarrerak	87	85	(2)
Ohiko transferentziak	242	252	4
Ondare dirusarrerak eta komunalak	2	34	1.600
Inbertsio errealen besterenganatzea	20	22	10
Transf. eta bertzelako dirusarrera finantzieroak.Kapital gastuak	151	131	(13)
Aktibo finantzieroak	13	9	(30)
Pasibo finantzieroak	329	0	
Dirusarrerak, guztira	940	637	(32)

1994 eta 1995eko gastu eta dirusarreraren betetzearen arteko konpa-rrazioari dagokionez, hauexek dira konklusioak:

- 1995ean gastuak %23 gutxitu dira, batez ere 9. kapituluaren (pasi-bo finantzieroak) aldaketagatik. Izan ere, 1994an 213 milioiko kredi-tuak alde aurretik kitatu ziren, korritu tikiagoan kontzertaturiko 300 milioiko kredituarekin birfinantzatu eta gero. Aldaketak kapituluka aztertuz gero, langileria gastuak eta ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak handitu eta ohiko transferentziak, inbertsio errealak eta fi-nantza gastuak gutxitu direla ikusten da.

- Dirusarrerak, 1994ko datuekin alderatuz, %32 gutxitu dira. 1994an 300 milioiko kreditua kontzertatu eta Nafarroako Gobernutik 29 mi-lioiko aurrerakina jaso zenez, murrizketa gehien duen kapitulua pasi-bo finantzieroen aldaketa da. Ondare dirusarrerak nabarmen handitu dira eta inbertsioen besterenganatzenagatik dirusarrerak ere handia-goak izan dira.

Baztango Udalaren egoera ekonomikoari buruzko datu adierazgarriak aurkezten ditugu:

Kontzeptua	1994 (*)	1995
Superabita (milioi pezetak)	150	(47)
Dirusarreren betetze maila	88%	58%
Gastuen betetze maila	80%	63%
Aurrezki gordina (1) (milioitan)	74	105
Aurrezki garbia (2) (milioitan)	7	51
Zorpetze maila (3)	16%	11%
Zorpetze muga (4)	17%	22%
Gastu publikoa biztanleko (pezetak)	85.664	84.953
Langileriaren indizea (5)	27%	28%
Inbertsioaren indizea (6)	44%	43%
Presio fiskala (7) (pezetak)	22.737	23.551
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (8)	47%	60%

(*) 1994ko datuak ikuskatu gabe daudenez, ratioen kalkulua egiteko kreditoen kontratazio eta kantzelaioa hartu dira kontutan (pasibo finantzieroen aldaketa).

1) Ohiko dirusarrerak- funtzionamendu gastuak. Ohiko dirusarreratzat dirusarreren 1-5 kapituluak jotzen ditugu eta funtzionamendu gastuak gastuen 1., 2. eta 4. kapituluak.

2) Aurrezki gordina-zama finantzieroa. Zama finantzieroa gastuen 3. eta 9. kapituluak jotzen ditugu.

3) Zama finantzieroa/ Ohiko dirusarrerak x 100.

4) Aurrezki gordina/ Ohiko dirusarrerak X 100

5) Langileria gastuak / Gastuak

6) Inbertsio gastuak, ohiko transferentziak eta kapital transferentziak / Gastuak

7) Zergazko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapituluak) / Biztanle kopurua

8) Trasferentziengatikoko dirusarrerak (4 eta 7. kapituluak) / Dirusarrerak

1995eko Baztango Udalari buruzko adierazle batzuk 1994ko Nafarroako udalei buruzkoekin alderatuz gero (ikusitoki administrazioaren sektoreari buruzko txostena 1996ko uztailaren 16ko PAOren 46. zenbakia) honako datuok ateratzen ditugu:

	Baztan 95	Nafarroako Udalak 94
Biztanleko gastuak	84.953	100.405
Langileriaren indizea	28%	29%
Inbertsioaren indizea	43%	32%
Presio fiskala	23.551	40.679
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	60%	44%

Udalak 51 milioiko aurrezki gordina izan du 1995ean. Dirutza horri larren probetxamenduarengatik 9 milioiko itzultzea gehitu behar zaio. Horrek aurrezki gordina kalkulatzeko zama finantzierotzat jotako Nafarroako Gobernuaren 9 milioiko aurrerakina konpentsatu egingen du. Aurrezki hau ez da aski izan dirulaguntza eta ondasunen berrerengatzearen bidez finantzatu ez diren inbertsioen zatia berdintzeko, eta bertze kreditu edo mailegurik kontzertatu ez denez, horrek 46,5 milioiko defizita sortu du.

Udalaren zorpetze maila %11,4 da eta zorpetze muga %22. Dena den, kontuan hartzekoa da 1995ean ez dela dirurik erabili Udalak finantza entitateekin epe luzean dituen 360 milioiko kreditoen amortizaziorako.

Kontuhartzaitzak 1995eko kontuen itxierari buruz eginiko txostenak dio aurreko urteetan pilaturiko defizita 45,2 milioikoa zela. 1995ean kobratu beharreko 12,6 milioiko eskubideak bertan behera utzi dira. Dirutza horretatik 12 milioi ikastolako gurasoen elkartearen zorrari dagozkio. Beraz, 1995eko abenduaren 31an Udalaren defizita 104 milioikoa zen. Bertzalde, diruzaintzako gerakina ere negatiboa da 147 milioitan, behin kobratzen zailak diren saldoak kendu eta gero.

Defizita eta diruzaintzako gerakin negatiboari 1996rako aurreikusita zeuden inbertsioak erantsi behar zaizkie. Horrek, noski, zorpetzea handitzera behartzen du. 1997rako ondare elementuen salmentagatik 92 milioiko dirusarrerak aurreikusi dira eta Udalak 92 milioiko kredituak kontzertatzeko asmoa du.

Baztanen biztanleko gastua handia da inbertsio maila altuaren ondorioz. 1994ko datuen arabera, inbertsio maila Nafarroako Udalen batz bertzekoa baino handiagoa da.

1995eko zerga-zama 1994ko batz bertzekoa baino askoz tikiagoa da eta ohiko eta kapital transferentziengatik menpekotasuna Nafarroako Gobernuaren batz bertzeko dirulaguntzetatik gorakoa da. Adierazle ekonomikoen azterketan kontuan hartu behar da 1994tik 1995era zenbait dirusarreraren sailkapen irizpidean aldaketak izan direla zergazko dirusarreratzat hartu beharrean zergaz besteko dirusarreratzat hartzen baitira.

1995ean arlo ekonomikoan gertaturikoen artean honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Inbertsio maila handiari eutsi zaio 1995ean eta 1996an. Inbertsioen finantzaketarako erakundeetatik jasotako laguntza maila tikia izan da.

- Ibilgetuaren salmentarengatik dirusarrera handiak.

Udalaren egoera ekonomikoa zuzentzeko gure gomendioa da Udalak neurriak har ditzan, horien artean, ohiko gastuaren arrazionalizatzea eta inbertsioen aukeraketa egokia egitea.

Diruzaintza plan bat egitea beharrak eta erabilgarriaren berri zehatza alde aurretik ezagutzeko. Plana aurrekontuaren kudeaketarako tresnatzat erabili beharko litzateke.

VI.3. Aurreko txostenaren gomendioen jarraipena

Oro har, 1987ko ekitaldiari dagozkion txostenaren gomendioak kontutan hartu direla egiaztatu dugu. Alde horretatik, ondorengo azpimarratu nahi dugu:

- Ekitaldi-plan zehatzen araberako aurrekontua egiten da. Hasierako aurrekontutik gorako gastuetarako aurrekontu aldaketak egiten dira eta eragiketak beren izaera ekonomikoaren arabera erregistratzen dira irizpide homogeenak erabiliz.

- Administrazio bulegoan garatutako tresna informatikoei dagokienez, 1995ean martxan jarritako aplikazioei esker aurrekontu kontabilitateak ondare kontabilitatean badu islarik.

- Diruz eta kutxa bidez eginiko eragiketak nabarmen gutxitu dira. Orain ordainketa gehienak finantza entitateen bitartez egiten dira eta zerga eta tasengatiko dirusarrerak helbideraturik daude.

- Zordunen kobrantzaren kudeaketa errazteko, 1988tik agentzia be-terazlearen zerbitzuak kontrataturik daude.

Honetaz gain, barne kontrolari dagozkion bertze zehaztasun batzuk txostenean zehar aipatu ditugu eta baita proposaturiko gomendioak ere.

Baztango ordenantzei dagokienez, legeri hori Nafarroako Toki Administrazioan eragina duen legeri orokorrera egokitzeko aukera aztertu beharko litzateke (Toki Administrazioaren Foru Legea eta Toki Ogasunen Foru Legea, bertzeak bertze).

VI.4. Antolaketa eta barne kontrola

Ondoren, antolaketa eta barne kontrolari lotutako ohar eta gomendio batzuk aipatzen ditugu.

Oro har, aipatzekoa da ziklo kontable eta administratibo garrantzitsuenei buruzko prozedura idatzirik ez dagoela.

- Uraren kudeaketa

Uraren kudeaketa herri bakoitzak egiten du bere aldetik eta Elizondon Udalak Iturri Ederra elkartearekin batera egiten du. Aipatu elkarteari ez zaio esleipen administratiborik eman eta ez dio Udalari deus ordaintzen. Halaber, aipatzekoa da ur kudeaketaren eragiketen-gatiko bien arteko saldoei dagokienez, Elkartea ez dela ados jartzen Udalarekin.

- Kobraketa kudeaketa

1993tik ordaindu gabe dauden ordainagiriak ez dira agente beterazlearen esku jarri. Izan ere, aurretik akatsak dituzten horietako batzuk gaurkotu egin behar baitira.

Agente beterazleak ez du haren lanaren ondorioz sor litezkeen erantzunkizunak babesteko kontratuak agintzen duen %5eko fidantza eratu.

Agente beterazleari emaniko kobratu gabeko saldoen kontrola eskuz egiten da eta, beraz, oso zaila da aipatu saldoen zerrenda ateratzea.

- Diruzaintzaren kudeaketa

Kantzelaturiko Banku-kontuei dagozkien saldo batzuk kontabilitatean segitzen dute.

Bi banku-konturen fondoen erabilera entitateran sinadura duten guztiek dute baimendua.

Kutxako kontaktak eta berdinkatze bankarioak egiteko ez dago maiztasun finkorik.

- Ibilgetua

Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasun zerrendaren gaineko kontrolik ez da egiten. Administrazio langileek ez dute ibilgetuaren gestioa daraman tresna informatikoa ezagutzen eta horrek erabilpena mugatu egiten du.

- Zergak

1995eko BEZaren aitortpenen aurkezpena nabarmen atzeratu dira.

Gomendioak:

Kudeaketa eta administrazio prozedurak idatziz finkatzea langile guztiek sistemak ezagutu eta dagozkien zeregin eta ardurak bere gain har ditzaten.

Elizondoko ur kudeaketaren zerbitzua juridikoki arautzea eta baita Udalaren eta Iturri Ederra elkarrearen arteko harreman ekonomikoak ere.

Aurreko urteetako ordaindu gabeko ordainagiria zuzendu eta agente beterazlearen esku uztea. Hari kontratuak aginduriko fidantza eskatu behar zaio.

Agente beterazleari emaniko kobratu gabeko saldoen gaineko kontabilitatez kanpoko kontrol informatizaturik martxan jartzea, zordunak, zergak eta zorraren data zehaztuz. Informazio hori eta

agente beterazlearena, gutxienez, urtean behin berdinkatu behar da.

Kantzelaturiko banku-kontua kontu erregistroetan bertan behera uztea.

Banku-kontuen fondoan erabilpena, gutxienez, bi pertsonaren sinadura amankomunatuaren bitartez egitea.

Kutxako kontaketa eta berdinkatze bankarioak hilabetean behin egitea.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondare zerrenda gaurkotzea.

Halaber, gure ustez Udalak errekurtsioen kudeaketan lorturiko eraginkortasuna aztertu ahal izateko beharrezko diren xede, bitarteko eta adierazleak finkatzen hasi beharko luke.

VI.5.Gastuak

VI.5.1. Langileria gastuak

Langileria gastuaren kapituluaren aitorturiko betebeharrak 193 milioioak dira, aurrekontu betetzearen %28. Kapituluaren betetze maila behin betiko aurrekontuaren %99 izan da.

Langileria gastuetan biltzen dira, funtsean, funtzionarioen, lan kontratupekoen eta aldi baterako langileen soldatak eta baita Gizarte Segurantzza eta Montepioei ordainduriko kuotak ere.

Plantila honakoa da:

	Guztira	Bete gabe
Funtzionarioak	20	4
Lan kontratupeko finkoak	0	0
Guztira		

Hiru funtzionario, izendapen librearen ondorioz, bete gabe dauden hiru lanpostu ari dira betetzen eta bertzea aldi baterako langile batek betetzen du.

Plantilako langileriaz gain, aldi baterako kontratazio asko dago gizarte-programei eta herri lanei lotuta.

Plantila organikoa eta langileriaren izen zerrenda behar bezala onartu dira.

Plantila organikotik abiatuta eginiko organigramarik ez da egin.

LANGILERIAREN KUDEAKETA

Lan kontratupekoen nominak kanpoko agentzia batek egiten ditu. Funtzionarioen ordainsarien euskarriztat kontzeptu eta zenbatekoen egoera, aplikaturiko kenketak eta ordaindu beharreko likidoa daude. Hori gordailuzaintzak egiten du.

Idazkariak onarturiko informazio hori erabiliz, gehienetan, nominak kontabilizatu eta ADOP prozesua sortu egiten da eta hortik MP dokumentua. Azken hau alkateak eta idazkariak baimentzen dute bien sinaduraren bitartez. Dena den, ordainketa ADOP izeneko sortu baino lehen eta baita alkate eta idazkariaren baimenik gabe ere egin daitekeela frogatu dugu.

Langileria gastuen artean Udaleko plantilatik kanpoko pertsonak eginiko zerbitzuen 1,2 milioiko dirutza sartu da. Gastu hori ohiko ondasun eta zerbitzuetan sartu beharko lirateke.

Aparteko ordu eta gaueko zerbitzuengatik ordainsariak ez dira langileen nominetan sartzen eta aipatu ordainketengatik ez da deus kotizatzen.

Hau dena kontuan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

Jasotako zerbitzuak beren izaera ekonomikoaren arabera sailkatu eta kontabilizatzea. Beraz, lan harremana dagoenean gastuak lan kontratua eskatzen du eta enpresen zerbitzu edo profesionalen errentapena baldin bada horren euskarria faktura izanen da zeini, behar denean, dagokion atxikipen fiskala egingen baitzaio.

Udaleko funtzionario bakoitzari bere nomina egitea.

Langile bakoitzaren nominan kontzeptu ezberdinengatik jasotako ordainsari guztiak sartzeara (aparteko orduak, gaueko zerbitzuak, etab.) eta ordainsarioi dagozkien kotizazioak betetzea.

Langileendako ordainketak behar bezala onartzea, hots, MP eta ADOP prozesua sortu eta gero.

V.I.5.2 Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak

143 milioiko gastua du, aurrekontu betetzearen % 21. Kapituluaren betetzearen portzentaia behin betiko aurrekontuaren %95eraino igo da.

Kontabilitatezko saldoak ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketengatik gastuak ongi islatzen baditu ere, bada salbuespen bat. Izan ere, ekitaldian ez dira kontabilizatu 6,4 milioiko gastu batzuk. 1995eko aholkularitza zerbitzuei loturik dauden gastu horiek 1996an kontabilizatu dira.

Azterketaren konklusioak honakoak dira:

1° Erosketa arloan ez dago administrazio-kontu eragiketak egiteko prozedura idatzirik.

2° Aurrekontuaren betetzearen oinarriek gastuotarako finkatzen dituen prozedurak ez dira betetzen. Gehienetan gastuaren proposamena, aurreko fiskalizazioa eta kredituaren gordetzea ez dira egiten. Gastuaren baimen eta erabilpena, betebeharraren aitortpena eta ordainketaren agindua pauso bakar batean kontabilizatu egiten dira fakturaren data bera dutela eta, batzutan, gastuak behin faktura jaso eta gero onartu egiten dira.

3° Gastuen fase ezberdinen kontabilizazioa pertsona bakar batek egiten du. Pertsona hori bera da faktura berraztertu eta ordainketak egiten dituen.

4. Gastuen euskarriei dagokienez, fakturretan ez dira beti legeak eskaturiko baldintza guztiak betetzen.

Aurrekoa kontutan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

Sortzapen irizpidea aplikatzea, hots, gastuak egiten diren ekitaldian erregistratzea.

Gastuetarako finkaturik dauden aurrekontuaren betetzearen oinarriak zorrozki errespetatzea.

Langileen betebeharrak behar bezala bereiztea pertsona berak ez dituzan fakturen kontabilizazioa eta azterketa egin.

Eginiko gastuen euskarritzat indarrean dagoen legediak aginduriko dokumentazioa eskatzea (fakturak, etab.).

VI.5.3. Finantza gastuak

Onarturiko betebeharrak 40 milioikoak dira. Behin betiko aurrekontuaren betetze maila %96 da.

Aipatu zenbatekoa kredituen interes, banku-zorpeko eta ibilgetuen hartzekodun dituzten atzeraturiko zorrei dagokie.

Finantza gastuak ordakinketa irizpidearen arabera kontabilizatu egiten dira. Hortaz, ekitaldi bakoitzean aurrekoan sorturiko gastuak erregistratzen dira baina ez da islatzen 1995eko ekitaldiaren amaieran ordaindu gabeko interesengatik hornidura. 1995eko abenduaren 31an ordaintzeke zeuden interesak 2,7 milioikoak ziren.

Finantza gastuetarako sortzapenaren irizpidea aplikatzea. Hortaz, ekitaldi bakoitzari sorturiko finantza gastuak aplikatu behar zaizkio zenbatekoa eta mailegu eta kredituen erabilera-dataren arabera. Eki-

taldi amaieran ordaindu gabeko interesak, berriz, ordaintzeke kapitulu-
luan islatu behar dira.

VI.5.4 Ohiko transferentziak

Kapitulu honek 34 milioiko betetzea du, aurrekontu betetzearen %5.

Kapituluaren betetze maila behin betiko aurrekontuaren %86raino igo da.

Ohiko transferentzietan bailarako udala osaturiko udalen ekarpenak daude eta baita kultur, kirol eta gizarte ekintzak antolatzeke finanziazioa ere. Udalak herriei ur hornikuntzagaratik emaniko zenbatekoak eta Nafarroako Gobernuak irrtati bati emaniko dirulaguntzak ohiko transferentziengatik gastuetan eta tasak eta ohiko transferentziengatik dirusarreretan erregistratzen dira, hurrenez hurren.

VI.5.5 Inbertsio errealak

Onarturiko betebeharrak 259 milioikoak dira, gastuen aurrekontuaren betetzearen %38.

Behin betiko aurrekontua kontuan hartuz, betebetze maila %40 izan da. Betetze maila apala, funtsean, aurreikusitako obra nagusien atzerapenak eragin du: Argikuntza publikoaren instalazioa, toki sareen saneamendua (betetzea %50tik beherakoa izan da) eta Arraiozko frontoiaren eta hiltegiaren eraikuntza, azken bi hauek ekitaldi amaieran hasitakoak.

Honako obra hauek aztertu ditugu:

- Toki sareen saneamendua, 51,2 milioiko betetzearekin.
- Argikuntza publikoa, 24,8 milioiko gastua.
- Larreak (26,8 milioi)
- Ohiarbideren hobekuntza, 8,2 milioiko betetzearekin.

Aipatu lau obra hauek, guztira, 111 milioitan daude erregistraturik, kapituluaren betetakoaren %43.

V.I.10 kapituluaren Baztango Udalak eginiko obra kontratazioei buruzko aipamen batzuk egiten dira. Hemen, 1995eko aurrekontuaren inbertsio errealen kitapenarekin zer ikusia dutenak aipatzera mugatuko gara.

Obra batzuk ez dira inbertsio errealen gastutzat erregistratu, hala nola, 1995eko irailaren 30eko 4,3 milioiko ziurtagiria toki sareen saneamenduari dagokiona eta administrazioak eginiko inbertsioei dagozkien 2,4 milioiko lan eta materialen fakturak, 1995ean jasotakoak.

Inbertsio errealen erregistroan sortzapean irizpidea erabiltzeko gomendioa ematen dugu eginiko obrak adjudikatzaileeen ziurtagirien eta material eta zerbitzuen fakturen arabera isla daitezen. Halaber, ekitaldiaren itxiera egokia egiteko asmoz, komenigarria litzateke abenduaren 31an data horretan eginiko obrari dagozkion ziurtagiriak izatea.

VI.5.6 Pasibo finantzieroen aldaketak

15 milioiko betetzea du, aurrekontu betetzearen %2. Behin betiko prebisioren %100 bete da.

Hona hemen pasibo finantzieroen zerrenda 1995eko abenduaren 31an:

Pasibo finantzieroen zerrenda 1995eko abenduaren 31an

Entitate	Finantzaturiko konzeptua	Hasierako zenbatekoa	Kontzesio urtea	Interesak	Urte muga	Zor bizia 95/1/1an	Urteko amortizazioa	Maillegu berriak	Zor bizia 95/12/31an
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Inbertsioak	60.000.000	1993	7,3	2003	60.000.000	0	0	60.000.000
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Inbertsioak	300.000.000	1994	7,6	2009	300.000.000	0	0	300.000.000
Nafarroako Gobernua	Argikuntza publikoa	2.151.552	1980	0	1995	143.854	143.854	0	0
Nafarroako Gobernua	Arizkuingo larreak	493.311	1980	0	1995	32.879	32.879	0	0
Nafarroako Gobernua	Arriozko larreak	4.399.502	1980	0	1995	293.302	293.302	0	0
Nafarroako Gobernua	Artolako larreak	3.638.937	1984	0	1998	1.212.968	303.242	0	909.726
Nafarroako Gobernua	Anizko larreak	4.299.350	1984	0	1995	357.912	357.912	0	0
Nafarroako Gobernua	Gartzaingo larreak	25.490.428	1987	0	1998	8.496.808	2.124.202	0	6.372.606
Nafarroako Gobernua	Soalarreko larreak	40.420.617	1988	0	2008	28.294.420	2.021.030	0	26.273.390
Nafarroako Gobernua	Zigako larreak	24.343.906	1989	0	2009	18.257.925	1.217.195	0	17.040.730
Nafarroako Gobernua	Almandotzeko larreak	26.152.405	1992	0	2011	22.229.540	1.307.620	0	20.921.920
Nafarroako Gobernua	Erdizko larreak	5.473.776	1992	0	2012	4.926.384	273.688	0	4.652.696
Nafarroako Gobernua	Muñuako larreak	1.818.309	1992	0	2012	1.636.470	90.915	0	1.545.555
Nafarroako Gobernua	Soalarreko larreak	11.167.234	1992	0	2012	10.050.498	558.361	0	9.492.137
Nafarroako Gobernua	Katastroa	11.755.848	1992	0	1995	3.918.616	3.918.616	0	0
Nafarroako Gobernua	Lursailen erosketa	20.956.000	1992	0	2002	16.764.800	2.095.600	0	14.669.200
VINSA		200.000	1985	0	1996	10.000	10.000	0	0
VINSA		735.000	1985	5	1995	36.750	36.750	0	0
Guztira		543.496.175				476.663.126	14.785.166	0	461.877.960

VI.6 Dirusarrerak

VI.6.1 Zergengatiko dirusarrerak

Zergengatiko dirusarrerak honakoak dira (milioitan):

	Hasierako prebisioa	Behin betiko prebisioa	Onarturiko eskubideak	Betetzearen portzentaia
Zuzeneko zergak	71	71	72	102
Zeharkako zergak	30	30	32	107
Tasak eta bertze dirusarrerak	75	75	85	113
Guztira	176	176	189	107

Ikusten denez, zergengatiko diru bilketa hasierako prebisioa baino handiagoa izan da.

1995eko ekitaldian kitaturiko zuzeneko zergak hiri kontribuzioa, landa lurra kontribuzioa, abereengatiko kontribuzioa eta lizentzia fiskala dira.

Zeharkako zergak, berriz, zirkulazioaren gaineko zerga eta Telefonicareen hegalkina, lurzorua eta lurrazpia erabiltzearen gaineko kanoa.

Tasak eta bertze dirusarreraren kapituluaren kontzeptu nagusia hauek dira:

	Milioi pezetan
Obren lizentziak	29,3
Hornikuntza elektrikoaren salmenta	11,4
Igerilekuak	5,5
Lurrazpiaren okupazioa (Iberdrola)	5
Musika eskola	4,5
Guztira	55,7

Aipatu dirusarrerak tasak eta bertze dirusarreraren kapituluaren %80 dira 1995ean.

Udalaren zentral hidroelektrikoetan sorturiko argindarraren salmentagatik Iberdrola, S.A. enpresatik jasotako dirutza ondasun dirusarreratzat jo beharko lirateke.

Dirusarrera fiskal guztiek badute dagokien ordenantza fiskala Musika Eskolaren eta Haurtzaindegiaren tasak izan ezik.

Eginiko azterketa kontuan hartuz, hona hemen konklusioak:

•Aldizkako zergen banku-helbideratzearen portzentaiak honakoak dira

	%
Kontribuzioak	72
Zirkulazioaren gaineko zerga	40
Lizentzi fiskala	70

Beraz, helbideratzearen portzentaia handitzeko ahalegina egin beharko litzateke.

•Obretan atzerapen handiak daude eta ez da atzerapenengatik gainkargurik aplikatzen.

•Lizentzi fiskalaren ordainagirien informazioa Nafarroako Gobernuak bidalitakoa da eta ordainagiriak bidali baino lehen ez da Udalaren datu gaurkotuekin egiaztatzen.

•Udalaren Gobernu Batzordeak ez ditu landa-lurra eta abereengatik kontribuzioen erroldak onartu.

•Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren bilketarako dagoen datu-zerrenda eta kontribuzioa, lizentzi fiskala, zabor eta komunale-na ezberdinak dira. Horrek zergaordaintzale bakoitzak kontzeptu ezberdinengatik duen zor orokorra ezagutzea zaildu egiten du.

Hau guztia kontuan hartuz, hauxe gomendatzen dugu:

Ordainagirien helbideratzea bultzatzea, kobraturiko zenbatekoen eta kobratzeke dauden kudeaketa eta kontrola errazagoa izan dadin.

Errekarguei dagokienez, indarrean dagoen legeria betetzea, 1995eko martxoaren 10eko Toki Ogasun Foru Legeak agintzen duena kontuan hartuz.

Lizentzi fisikalaren ordainagiriak bidaltzerakoan Nafarroako Gobernuaren informazioa Udalak berak duenarekin konparatzea, izan litezken akatsak zuzentzeko.

Zerga guztien erroldak horretarako ahalmena duen organoak onartzea.

Bilketaren aplikazio informatikoa izatea, horrek zordun bakoitzak kontzeptu guztiengatik duen saldoa ezagutzea erraztuko baitu.

VI.6.2 Ohiko transferentziak

Behin betiko prebizioaren %98 bete eta gero, kapitulua onarturiko dirusarreraren % 40 da.

Kapitulua Udalak jasotako kontraprestaziorik gabeko zergaz beste teko dirusarrerak biltzen ditu. Dirusarrera hauek ohiko eragiketengatiko gastuak finantzatzeko erabiltzen dira.

Jasotako transferentzi gehienak Nafarroako Gobernutik datoz.

VI.6.3 Ondasun dirusarrerak

34 milioiko dirusarrerak ditu, aurrekontu betetzearen ehuneko 5. Kapituluaren betetzearen portzentaia behin betiko aurrekontuaren ehuneko 102 izan da.

Kapituluaren dirusarreretan igoera nabarmena izan da 1995ean. Horren arrazoia bikoitza da: alde batetik, ohiar-probetxamenduak, baztandarrei adjudikazio zuzenaren bidez eta bertzei enkante publikoan emanak; bertzalde larre, urratze eta zuhaitz landaketaren kano na, hauek ere Udalak zuzenean emanak.

VI.6.4 Inbertsio errealeen besterenganatzea

Inbertsio errealeen besterenganatzearen kapitulua 22 milioikoa da, aurrekontuaren ehuneko lau. Behin betiko prebizioaren ehuneko 15 bete da.

Lantegi eta etxebizitzaren eraikuntzarako lurzatiaren besterenganatzeak egin dira 1995ean. Halaber, lurzati eta zuhaitzak saldu egin dira Belateko Tunelaren obrak egiteko (Nafarroako Gobernuak eginiko desjabetzea) eta Iberdrolak ere lurzati batzuk hartu ditu argindararen instalaziorako.

Kapituluaren betetze maila murrizak bi arrazoi ditu: alde batetik, lurzoru industrialak bultzatzeko aurreikusita zegoen 102 milioiko besterenganatzea ez dela ekitaldian egin eta, bertzalde, Belateko Tunelaren obra lanetarako lur sailen desjabetzea aurreikusitakoa baino 17 milioi guttiagokoa izan dela.

VI.6.5 Kapital transferentziak

Kapital transferentziengatik dirusarreraren kapitulua 131 milioi pezetakoa da, aurrekontuaren ehuneko 21. Behin betiko prebizioaren ehuneko 33 bete da.

Kapituluaren dirusarreraren kontusail nagusiak Nafarroako Gobernuak eta Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA) enpresak eginiko inbertsioak finantzatzeko eman dituzten dirulaguntzak dira.

Aurreikusitako dirulaguntza gehienak ez dira 1995ean jaso zenbait obra garrantzitsutan atzerapenak izan direlako. Horixe da kapituluaren betetze maila murriztaren arrazoia. (Ikusi inbertsio errealengatikoko gastuen 6. kapitulua).

VI.6.6 Aktibo finantzierokoak

Kapitulu honek 9 milioiko betetzea izan du, dirusarreraren aurrekontuaren ehuneko bat. Aurreikusitako dirusarrerarekin konparatuz, betetze maila ehuneko 99 izan da.

Hona hemen aktibo finantzieroen zerrenda 1995eko abenduaren 31an:

Kotzceptua	Hasierako zenbatekoa	Kontzesio urtea	Interesak	Urte muga	Saldo bizia 95/1/1ean	Itzultzea	Kreditu berriak	Saldo bizia 95/12/31an
Artolako larreak	3.638.937	1984	0	1998	606.488	303.244		303.244
Anizko larreak	4.299.350	1984	0	1995	716.562	358.281		358.281
Gartzaingo larreak	25.490.428	1987	0	1998	8.496.824	2.124.206		6.372.618
Soalarreko larreak	40.420.617	1988	0	2008	20.566.000	1.469.000		19.097.000
Zigako larreak	24.343.906	1989	0	2009	18.257.880	1.217.192		17.040.688
Almandotzeko larreak	26.152.405	1992	0	2011	21.958.628	1.291.684		20.666.944
Soalarreko larreak	11.167.234	1992	0	2012	10.050.498	558.361		9.492.137
Lursailen erosketa	20.956.000	1992	0	2002	16.764.800	2.095.600		14.669.200
Guztira	156.468.877				97.417.680	9.417.568	0	88.000.112

VI.6.7 Pasibo finantzierokoak

Kapitulu honetan ez da deus bete aurreikusita zegoen 73 milioiko mailegua ez baita kontzertatu. Maileguak inbertsioen finantzaketa zuen helburu.

VI.7 Erakunde Autonomoak

Baztango Udalak bi erakunde autonomo ditu: Francisco Javier de Iriarte Zahar eta Jubilatuen Egoitza eta Baztango Ikastola. Berauen aurrekontuak, hurrenez hurren, 145 eta 42 milioikoak dira eta 1995eko maiatzaren 23ko osoko bilkuran onartu ziren. Hala ere, ez dira Udalaren aurrekontuan sartzen. Erakunde autonomoek 1995ean ez dute aurrekontu kontabilitatea egin. Dirusarrera eta gastuen iharduerakako egoera baizik ez dute aurkeztu.

Egoera iaz zuzendu zen bi erakundeon kontabilitatea Udalak erabiltzen duen kontabilitate publikoaren plan orokorrera egokitu baita.

Bi erakunde autonomoei dagokienez honakoa erran dezakegu:

- Udalak ez ditu erakundeon iharduera ekonomikoak fiskalizatzen.

- Gastuak fakturaren dataren arabera erregistratzen dira. Hau dela eta, 1995ean sorturiko gastuak hurrengo ekitaldian kontabilizatzen dira. Dena den, gure azterketan antzeman ditugunak ez dira garrantzitsuak.

- Erakunde autonomoen ondasun zerrenda gaurkoturik ez dago. Horrek ondasun balioari buruzko informazioa erraztuko luke.

- Ez dira aldizkako kutxa kontaketa eta berdinkatze bankarioa egingen.

- Langile batzuei 1995ean aplikaturiko PFEZ-ren kenketak ekitaldirako legeak agindutakoak baino murriztagoak ziren.

- Langile finko baten kontratazioan ez dira toki entitateek bete beharreko baldintzak bete (oposizio-lehiaketa).

Hau dena kontutan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

Udalaren kontuhartzaitzak benetako fiskalizazioa egitea, eragiketen erregistroa egokia izan dadin eta Udalak indarrean dagoen legeria bete dezan.

Ekitaldi bakoitzeko gastu eta dirusarreraren aurrekontu kitapenaren egoera egin eta Udalarenean sartzea.

Eginiko eragiketen erregistro egokia egiteko, sortzapen irizpidea aplikatzea.

Kutxa kontaketak eta berdinkatze bankarioak hilabetero egitea.

Langileei aplikaturiko PFEZ-ren kenketak biraztertu eta zuzendu indarrean dagoen legeriaren arabekoak izan daitezzen.

Toki entitateek langile finkoen kontratazioan bete beharreko legeria betetzea.

VI.7.1 Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen Egoitza

Iritziaren laugarren kapituluan aipatu dugun bezala, 1995eko gastu eta dirusarreraren egoerak ekitaldian eginiko eragiketen emaitza, oro har, ongi islatzen du. Salbuespen bakarra da inbertsio finantziarioen interesengatiko dirusarreraren erregistroa, sortzapen irizpidea erabili beharrean kasu honetan kobratzean erregistratzen baita.

Gure azterketan honakoa antzeman dugu:

- Administratzailearena sinadura bakarra da erakundearen bankukontu guztietan eta baita erakundearen eta egoitzan bizi direnen arteko kontuetan ere.

- 1995eko abenduaren 31ko inbertsio finantzieroen egoeran dagoen banku-kontu baten titularra erakundeko administratzailea da eta ez daude erregistraturik erakundeak eta bertan bizi direnek amankomunean dituzten banku-kontuak.

- Bankutan dauden inbertsio finantzieroek (epe finkora, batez ere) atxikipen fiskala dute, inbertsio finantzieroen ehuneko 25. Entitateak ezin du kenketa hori berreskuratu ez baitzaio bere errentari zergarik ezartzen.

- Zaharretxean bizi direnei aplikatzen zaizkien tasak ez ditu Gobernu Batzordeak onartu.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institututik jasotako dirusarrerak eta gaizki kobraturiko dirusarreraren itzulketak berauen kobrantza eta ordainketaren arabera erregistratzen dira eta, batzutan, sortzapenetik sei hilabete baino gehiagoko atzerapenak izaten dira.

Gure gomendioak honakoak dira:

Bankuetan, gutxienez, bi pertsonak izan dezatela sinadura (horiari bat Udaleko kontuhartzailea izan daiteke) eta fondoak erabiltzeko sinadura amankomunatu beharrezkoa izan dadila.

Finantza-entitateetan dauden kontuen titulartasuna eta berauekin egiten diren eragiketen titulartasuna argitzea.

Errekurtsoak kenketa fiskalik ez duten aktibo finantzierotan inbertitzea (hala ere, aipatzekoa da 1997tik aurrera toki entitateei ez zaiela kenketarik aplikatuko).

Egoitzan bizi direnei aplikatzen zaizkien tarifak Gobernu Batzordeak onartu behar ditu.

Nafarroako Gizarte Ongizate institututik jasotzen diren dirulaguntzen gaineko kontrol egokiagoa behar da, kobratzeke dauden zenbatekoak eta gaizki kobratu direlako itzuli behar direnak edozein momentutan zenbatu ahal izateko.

VI.7.2. Baztango Ikastola

Iritziaren IV. kapituluan erran dugun bezala, 1995eko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren egoerak (V.atala) ongi islatzen ditu ekitaldiko eragiketen emaitzak. Bada, ordea, salbuespenen bat: alde batetik, langileriaren gastuak ordaintzean erregistratzen dira sortzapen irizpidea erabili beharrean; eta, bertzalde, ekitaldi bakoitzean finantzatutako defizita ez da dirusarreratzat erregistratzen.

Gure azterketan honakoa antzeman dugu:

- Ikastolaren banku kontuen fondoak sinadura duten guztiek erabil ditzakete bertzelako baldintzarik gabe.

- 1995eko abenduaren 31ko bankuen saldoan ez daude erregistraturik ikastolak erabilitako bi kontu. Horietako baten titularra Ikasleen Guraso Elkarte da eta beronen eragiketak ikastolaren gastu eta dirusarreraren kontu egoeran erregistratzen dira; bertzearen titularra ikastola bera da eta kontuan eginiko eragiketak ez dira gastu eta dirusarreraren egoeran islatzen.

Gure gomendioak honakoak dira:

Banku-kontuen fondoan erabilera sinadura duten pertsonen modu amankomunean egin behar dute.

Ikastolak eginiko eragiketa guztiak erregistratzea eta ez gainerakoak. Halaber, Ikasleen Guraso Elkartearen izenean dauden kontuen titulartsuna argitu beharko litzateke.

VI.8 Betetze Funtzional-ekonomikoa

Gastuen aurrekontuaren betetzean Baztango Udalak dituen lehen-tasunak ezagutzeko, egoera finantzieroen V. atalean bilduriko sailkapen funtzional-ekonomikoaren dirusailak bildu eta gastuen kontzeptu nagusiak laburbildu ditugu:

Kontzeptua	Milioi pezetak
Hirigintza	157
Administrazio nagusia	101
Pentsio eta bertzelako prestazioak (gizarte aseguruak)	84
Ura	82
Zor publikoa	55
Nekazal azpiegiturak	43
Hezkuntza	31
Kultura	28
Kirola	26
Garbiketa	22
Guztira	629

Aipaturiko kontzeptu eta zenbatekoak 1995eko aurrekontu kitapean betetako gastuen ehuneko 92 dira.

VI.9. Udalaren egoera balantzeari buruzko iruzkin orokorrak (1995-12-31)


•Orokorra

1995eko abenduaren 31an Baztango Udalak aurkezturiko egoera balantzeak finantza egoera zaila islatzen du. Maniobra fondo negati-boa 104 milioikoa da eta 175 milioikoa litzateke hurrengo lerroaldeetan proposaturiko zuzenketa eta birsailkapenak erabiliz gero.

•Ibilgetu ukigarria eta erabilera orokorrekoa

Baztango Udalaren ondasun zerrenda Trabajos Catastrales, S.A. empresak egin zuen 1991an baina oraindik Udal osoko bilkurak ez du onartu.

Ondoren aurkezten duguna 1995eko hasierako saldotzat erregistra-turiko ibilgetu ukigarriaren laburpena da, 1991eko abenduaren 31ko udalaren ondasun zerrendan oinarrituta:



	Milioi pezetak
Lursailak eta ondasun naturalak	888
Eraikuntzak	1.490
Makineria, instalazioak eta lanabesak	41
Garraio elementuak	30
Altzariak	16
Tresna informatiboak	1
Guztira	2.466

Udalak ondasun zerrendaren emaitzak ondasun kontabilitatean sartu ditu 1995eko hasierako saldotzat.

Ondasun zerrendan sarturiko ondasunak erosketa prezioan erre-gistatzen dira, baldin eta horri buruzko dokumentaziorik baldin bada-go. Erosketa prezioa eta amortizazioak aplikatzeko behar den onda-sunaren iraupenari buruzko daturik ez badago, katastro balioa era-biltzen da. 1991etik ez da ondasun zerrenda gaurkotu.

Ibilgetu ukigarriaren balio kontableari buruzko erregistro euskarri egokirik ez dago, eta berdin erran daiteke publikoaren erabilerrako ibilgetuaz. Izan ere, 1995eko ekitaldiko hasierako saldo kontableak egiteko oinarria 1991eko abenduaren 31ko ondasun zerrenda da eta harrez geroztik ez da eguneratu. Beraz, 1994ko abenduaren 31ra arte-ko inbertsio eta besterenganatzeengatik aldaketak ez dira sartu.

Aurrekontu kontabilitatean erregistraturiko inbertsio errealen zen-batekoa ibilgetu ukigarriaren altatzat islatu dira. Zenbateko horiek ez dituzte biltzen 1995eko obra lanen ordainagiriak eta ukigarriari da-

gozkion material eta lanen fakturak. Guztira, 6,7 milioi dira kontabilitateak islatu ez dituenak.

Salmentaren ondorizko ibilgetuaren bajak besterenganatzearen prezioan erregistratzen dira ondasun zerrendak finkaturiko zenbatekoa kontuan hartu beharrean.

Ibilgetu ukigarriaren ondasunei ez zaie amortizaziorik aplikatzen.

Udalaren ondasun zerrenda gaurkotzea gomendatzen dugu ibilgetuaren balio kontableak euskarri egokia izan dezan. Euskarriak honakoa bildu beharko luke: erosketaren data, ondasunari aplikatzen zaion iraupena, urteko amortizazioak, bilduriko amortizazioa, balio gordinak, etab.

Ibilgetuaren ondasunegintza eragiketarako behar bezala erregistratzeko kontabilitate sistema egokia erabili behar da. Altak erosketak prezioan eta betetako epean erregistratu behar dira. Bajak balio kontableen arabera, etekinak edo galerak islatuz. Amortizazioak, ondasun depreziagarriei dagokienez, kalkulaturiko ondasunaren iraupenaren arabera egin behar dira.

• Ibilgetu ez ukigarria

Zerbitzu-sari eta arau subsidiario eta Udaleko langileriaren prestakuntzari buruzko proiekturi lotutako 5,6 milioiko dirutza dago erregistraturik atal honetan. Bi kontzeptuok ekitaldiko gastutzat erregistratu behar dira.

Dirusarrerik sortzen ez duten kontzeptuak ibilgetu ez ukigarritzat jo beharrean ekitaldiko gastutzat erregistratzea gomendatzen dugu.

• Finantza-ibilgetua

Larreraren probetxamenduagatik kobratu beharreko zenbatekoa inbertsio finantzierotzat kontabilizatu da. Zenbatekoa, guti goiti behiti, Nafarroako Gobernuaren aurrerakinez finantzaturiko larren prestaketaren kostua da. (Ikusi epe luzerako zorrak). Interesik ez duen saldo horretatik, 9,4 milioi 1996an dute mugaeguna.

Mugaeguna epe motzean duten kobratu beharreko eskubideak egoera balantzearen aktibo zirkulatuazailan sailkatzea gomendatzen dugu.

•Zordunak

1995eko abenduaren 31an kobratzeke zeuden zorrak eta gure lana egitean bilduta eta kobratzeke zegoena hauxe da.

Zorraren data	95/12/31eko saldoa	1996an kobratutakoa	Kobratzeke
1988	323.938	0	323.938
1989	7.912.493	0	7.912.493
1990	1.456.718	0	1.456.718
1991	182.999	0	182.999
1992	36.537.528	0	36.537.528
1993	7.009.740	24.466	6.985.274
1994	7.081.318	751.431	6.329.887
1995	97.128.138	78.734.015	18.394.123
Guztira	157.632.872	79.509.912	78.122.960

Zehazturiko zorraren 43 milioiko dirutza kobratzea zaila dirudi, aintzintasuna eta dirutzari dagokion kontzeptuak kontuan hartuz.

Aipatu zenbatekotik kanpo dago 1992ko Epaitegi Gorenaren sententzia batek lur sail batzuen jabe baten aurka finkaturiko 13,6 milioiko zorra. Pertsona horrek lur sailek zuten zerga-zama kentzeko eskatu zuen eta Nafarroako Epaitegi Gorenak zama hori 13,6 milioitan finkatu zuen. Lur-sailen jabeak zerga zama kentzearen aurkakoa balitz, Udalak ez luke zorra kobratuko.

•Diruzaintza

Diruzaintzaren egoera honakoa zen 1995eko abenduaren 31an:

	Pezetak
Kutxa	149.866
Banku, kontu korronteak eta aurrezki kontuak	736.099
Guztira	885.965

•Fondo propioak

Fondo propioen kontuetan 1995eko ekitaldian izandako eragiketen mugimenduak hauxe da:

	Hasierako saldoa	Zor	Hartzeko Amaierako saldoa
Ondasuna	2.041.322.526	0	2.041.322.526
Erabilera orokorrerako ondasuna	0	(51.436.402)	(51.436.402)
Ekitaldiko emaitza	0	0	51.332.059
Guztira	2.041.322.526	(51.436.402)	2.041.218.183

Ekitaldi hasieran kontabilizaturiko ondasuna data horretako aktibo eta pasiboaren arteko aldea bezalakoa da.

- Dirulaguntzak

Toki sektoreak erabilitako kontabilitate planaren arabera, dirulaguntzak dirusarrera-aurrekontuan kapital transferentziengatiko onarturiko eskubideei dagozkie.

- Epe luzerako zorrak

1995eko abenduaren 31ko egoera balantzean finantza entitateekin dauden epe luzerako kredituak eta Nafarroako Gobernuak emaniko aurrerakinak, zeinen itzulpena epe luzera hitzarturik baitago, epe luzerako zortzat daude islaturik. Saldoon artean kredituen murrizketari dagokion 7,5 milioiko bat eta Nafarroako Gobernuari itzuli beharreko bertze 10 milioiko bat daude. Balantze-datatik ondorengo 12 hilabeteetan dute muga eguna eta finantza-entitateekiko eta erakunde publikoekiko zortzat erregistratu beharko lirатеke.

Mailegu eta kredituengatiko interesei dagokien probisorik ez da egin. Interesek sortutako eta ordaintzeke dagoen probisioa 2,7 milioikoa da, guti goiti behiti.

Sorturiko interesak eta ekitaldi amaieran ordaintzeke daudenak erregistratzea gomendatzen dugu.

- Agindutako ordainketengatiko zordunak, erakunde publikoak eta bertze zordunak

1995ean eginiko inbertsio eta jasotako aholku-zerbitzuei dagokion 13,1 milioiko zorra ez da epe motzerako pasibotzat erregistratu.

Sortzapen irizpidea aplikatzea gomendatzen dugu. Horrek erran nahi du ekitaldi bakoitzari eginiko gastuak egotzi behar zaizkiola, nahiz eta gastuen ordainketa edo berauen euskarria hurrengo ekitaldikoak izan.

VI.10 Ondarearen Emaiza eta Emaiza Ekonomikoaren Kontuari buruzko izurkin orokorrak

Udalak aurkezturiko 1995eko ondarezko emaitza ekonomikoak, ondasun-kontabilitatean oinarrituta, 51,3 milioiko etekinak ditu.

Bada 12,6 milioiko emaitza negatiboa ekitaldi hasieran kobratzeke zeuden eskubideak bertan behera utzi eta zuzendu direlako. Aipagarriena Baztango Ikastolako Guraso Elkarteari kendutako 12 milioiko zorra. Zor hori ikastolaren edifizioaren (El Pilar ikastetxea) erosketaren ondorio zen.

Kontabilitatea aztertuta, ondareko emaitza ekonomikoan eragina duten zenbait gai aipatu nahi ditugu:

- 1995ean jasotako 130,6 milioiko dirulaguntzak ez dira dirusarreratzat erregistratu. Dirutza hori ekitaldi batzutan jaso beharreko dirusarreratzat dago islaturik 1995eko abenduaren 31ko egora balantzean.

- Kaudimengabeziei aurre egiteko beharrezkoak liratekeen 43 bat milioiko probisioak ez dira egin.

- Amortizagarriak diren ibilgetuaren ondasunen amortizazioak ez dira egin eta balio kontableak eta erosketaren zenbatekoak ezberdinak direnean, ibilgetuaren ondasunen desjabetzeek sortuko luketen etekin edo galerak ere ez dira erregistratu.

- Sortzapen irizpidearen erabilera okerraren ondorioz, 1995eko ekitaldian eginiko 9,1 milioiko gastuak ez dira erregistratu.

- Zerbitzu profesionalengatiko zerbitzu-sariei eta langileriaren heziketari dagozkien 5,6 milioiko gastuak ez dira ekitaldiko gastutzat erregistratu. Dirutza hau ibilgetu ez ukigarrian dago erregistraturik.

- BEZ zergaren 1990tik 1994ra bitarteko aitorpenen 3,5 milioiko saldo zorduna ez da ekitaldiko dirusarreratzat islatu. Aipatu aitorpenak 1995ean egin ziren.

Udalak egiten dituen eragiketen erregistroari dagokionez, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrak agindutakoa betetzea gomendatzen dugu.

VI.11 Obra, hornidura eta zerbitzuen kontratazioa

- Orokorra

Udalak eginiko obra, hornidura eta zerbitzuen kontratazioaren azterketan zenbatekoak handiak ez direnean, askotan, adjudikazio zuzena erabiltzen duela antzeman dugu.

Baztango Udalak ez du erosketa-batzorderik, nahiz eta Toki Administrazioaren 6/90 Foru legeak, uztailaren 2koa, 5.000 biztanletik gorako udaletan aipatu batzordea eratzera behartu.

Udalak gehienetan ez ditu adjudikaturiko obren zerrendak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen 13/83 Foru Legearen 43. artikulua agindutakoari muzin eginez.

Azterturiko espedienteetan kreditu-izakinaren ziurtagiririk eza antzeman dugu.

Ondoren 1995eko ekitaldiari dagozkion bortz kontratazio espedienteren azterketaren emaitzak aurkezten ditugu.

•Argikuntza publikoa

Obraren proiektu teknikoak ez du egin beharreko lanen zerrendarik biltzen Kontratuen Foru Legeak hori egitera behartzen badu ere.

Kontratazio prozedura lehiaketa da. Administrazio baldintzen orrian ez dira zehazten adjudikazioa egiteko kontuan harturiko irizpideak. Izenez lehiaketa izanagatik, berez enkantea da eskaintza ekonomikorik merkeenari adjudikatzen zaiolako, bertzelako irizpiderik kontuan hartu gabe.

Obraren adjudikazioa 1995eko martxoaren 17an egin zen Electricidad Fija, S.L. empresari. Hasierako aurrekontua 44,8 milioikoa izanik, ausarkeriazko beherakadatzat jo zuen udalak. Antza denez, Udalak ez zuen interesatuekin hitz egin eta espedientean ez dago txosten tekniko osagarriren berririk.

Kontratua egin beharrean, adjudikazioaren jakinarazpena luzatu zitzaion adjudikatzailerari. Obra egiten ari zen bitartean, lan gehiago egin eta enpresa adjudikatzailerari ematea erabaki zen hasierako beherakada aplikatuz. Kasu honetan zenbatekoa 4,8 milioikoa izan zen.

Azkenean enpresari 53 milioi ordaindu zitzaizkion, zabaltzea barne, eta, beraz, desbiderapena ehuneko 6 izan zen. Prezio kontrajarrien aldaketa kontuan hartuta, desbiderapena ehuneko 3,5 litzateke.

Obra lanak 1995eko apirilaren 27an hasi eta zortzi hilabetez luzatu ziren. 1996ko otsailean aipaturiko lanen zabaltzea (4,8 milioi) egin zen eta lanak 1996ko maiatzean amaitu ziren. Lanen zabaltzea onartzean berauen betetze-epea zehazten ez denez, ezin da jakin obraren epeak bete zirenentz.

Argikuntzaren administrazio baldintzen artikuluetan ez da lanen ziurtagirien ordainketa-data modu argian zehazten.

•Larreen sorkuntza

Bi administrazio espediente ezberdin badira ere, ezaugarriak berdinak dituzte eta, beraz, batera aipatuko ditugu:

* Larreak. 1: Erdiz-Okoro. 13 milioiko aurrekontua.

* Larreak.2: Muñoa-Uzkaiti, etabar; 22 milioiko aurrekontua.

Bi administrazio espedienteon adjudikazioa adjudikazio zuzenaren bidez egin zen 1994an, urgentzia prozedura erabiliz. Administrazio espedienteak ez du presa hori behar bezala azaltzen.

Garai berean adjudikaturiko bi espedienteotan hiru enpresari eskaintza bana eskatzen zaie (bi pertsona fisiko eta elkarte mugatu bat). Espediente bakoitzak lizitatzailerik bakarra du, gehieneko prezioa eskaini eta obra bereganatzen duena. Larreak 1 Excavaciones Inzulegui, S.L. enpresari adjudikatu zitzaion 13 milioitan 1994ko abuztuaren 26an. Larreak 2 Juan Maria Galarregi Elizagoieni eman zitzaion 22 milioitan 1994ko abuztuaren 5ean.

Bi kontratuek agindutakoaren arabera, lanak 1994ko urriaren 31an amaitu behar ziren. Arrazoirik gabeko atzerapenik izanez gero, eguneko 5.000 pezetako zigorra finkatu zen.

Obren zuzendaritza Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Departamentuko zerbitzu teknikoen esku gelditu zen. Espedientean ez dago lanen burutzean izandako atzerapenari buruzko txosten teknikorik.

Adjudikazio kontratuak eta administrazioekiko kontratuen lege-riak agindutakoari muzin eginez, kontratuek ez zuten lanen zenbateko osoaren ehuneko 4ko abala aurkeztu.

Larreetan eginiko lanen fakturak aurkeztu eta hurrengo hilabetetan ordaindu ziren. Kontratuaren baldintzek, ordea, behin behineko obra-harrera egitean ehuneko 80 eta gainerakoa behin betiko obra harrera egitean ordaintzea agintzen zuten.

- Toki sareen saneamendua

Proiektu teknikoak ez ditu biltzen egin beharreko lanak. Obraren hasierako aurrekontua 168 milioikoa zen.

Adjudikazio prozedura enkantea izan zen. 1994ko irailaren 23ko osoko bilkuran Levelling-1 enpresari adjudikatu zitzaion 113 milioitan. Udalak ausarkeriazko beherakadatzat jo zuen. Espedienteak ez du txosten tekniko osagarriarik eta ezta adjudikatzaileekiko elkarriketarik. (bigarren eskaintza merkeena Huarte, S.A. enpresarena zen). Adjudikazio hitzarmenaren arabera, enpresak fidantza osagarritzat obraren zenbatekoaren ehuneko 6 ordaindu behar zuen eta obren betetzeari buruzko programa aurkeztu behar zuen.

Toki Administrazioaren Foru Legearen 232. artikulua eta Kontratuen Foru Legearen 133.2 artikulua kontratu horien kopia Kontuen Ganbara bidaltzeko agintzen badu ere, Udalak ez du egin.

Zuinketa aktaren arabera, obrak 1994ko azaroaren 29an hasi ziren eta 12 hilabeteko epean amaitu behar ziren.

1995eko irailaren hasieran enpresa adjudikatzaileak ordainketa etendura aurkeztu eta kontratua bertan behera uzteko eskatu zuen. Ordurarte Levelling-1, S.L. enpresak eginiko lanak kontrataturiko

obraren ehuneko 58 ziren eta aurkezturiko ordainagirien zenbatekoa 61 milioikoa zen.

1995eko osoko bilkuran Udalak honakoa onartu zuen:

1.) Enpresa adjudikatzailearekiko kontratua bertan behera uztea ordainketa etendura kontratua bertan behera uzteko aurreikusitako arrazoietakoa bat zelako.

2.) Ordainduriko fidantzak Udalak bereganatzea.

3.) Kontratuak agindutakoaren arabera, eragindako kalteengatik kalteordaina eskatzea.

Levelling-1, S.L. enpresak Udalaren erabakia Nafarroako Administrazio Epaitegian errekurritu du haren iritziz ez delako bidezkoa Udalak fidantza bereganatzea eta ordaintzeke dauden ordainagiriak eta sorturiko interesak kobratzeko eskubidea duelako. Udaleko letratu ahulkulariaren ustez, enpresa adjudikatzailearen errekurtsioak ez du aurrera egingen.

Zelaiko lana egiten ari ginenean honakoa zen egoera:

1.) Udalak ordaintzeke dituen ordainagirien zenbatekoa 12 milioikoa da.

2.) Aurretik ordainduriko ordainagiriei dagozkien atxikipenak 2,4 milioikoak dira.

3.) Udalari eragindako kaltea zenbatu gabe dago.

4.) Udala 1996ko apirilean 11 milioiko abalez jabetu zen.

5.) Auzia epaileen esku dago orain.

Egin gabe zegoen obraren zatia adjudikazio zuzena eta urgentziazko prozeduraren bidez kontratatu zen. Konkurrentzia handia izan zen hasierako enkantean parte harturiko enpresa guztiei eskaintzak eskatu zitzaizkielako. Udalak Construcciones Azpiroz y Saralegui, S.L. enpresari adjudikatu zion 63,4 milioitan. Bigarren adjudikazio honen beharakada ehuneko 18 izan zen, Levelling-1, S.L. enpresarena (%32) baino murriztagoa.

Bigarren adjudikazioa ez zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Zuinketa akta 1996ko urtarrilaren 8an sinatu zen eta betetze epea sei hilabetean finkatu zen.

Ondoren, sareak aldatzen ari ziren kaleetan zoladura egiteko kontratua adjudikazio zuzena eta presa prozeduraren bidez egin zen. Enpresa adjudikatzailea Azpiroz y Saralegui, S.L. izan zen, aurrekontu

merkeena aurkeztu zuena. Obra honek 3 hilabeteko epea zuen eta zuinketa akta 1996ko martxoaren 21an burutu zen.

Gure lana amaitzean, oraindik ez dira adjudikaturiko lan guztiak amaitu eta, beraz, ezin dugu jakin obrek desbiderapen edota atzerapenik izan ote duen.

•INEM-Nafarroako Gobernua-Toki Administrazioak

Aldi baterako langileen kontratazioa, materialen erosketa eta birkontraturiko lanen bidez eginiko obrak dira. Kontu honetan 51 milioiko gastuak erregistratu dira.

Udala, Nafarroako Gobernua eta INEMen arteko hitzarmenari esker eginiko laneetako bat haurtzaindegiaren eraikuntza da. Proiektuak 9,7 milioiko aurrekontua zuen.

Haurtzaindegiarena da administrazio espedientea duen obra bakarra, nahiz eta espedientea osoa ez izan. Obra hau ezin izan dugu aztertu ondoko arrazoiengatik:

1.) Kontraturiko obretan langileek eginiko lanorduen erregistrorik ez dago. Informazio hori lortzea oso zaila litzateke.

2.) Langile kontratatuak mota askotako lanak egien dituzte, batzuk mantentimendu-lanak dira eta bertze batzuk lan berriak.

3.) Batzutan erosketak biltegiari daude asignatuta eta, beraz, zer obratan erabili ziren jakiterik ez dago.

Hau dena kontuan hartuz, haurtzaindegiaren kostu erreala ezagutzerik ez dago.

•Ohiarbideen hobekuntzak

Obra honek ez du administrazio espedienterik. Hortaz, administrazio publikoen kontratazio legeria ez da bete. Euskarri bakartzat fakturak aurkeztu dira.

Udaleko ordezkariak diotenez, obra hau Nafarroako Gobernuaren aholkuari jarraituz egin zen. Hasierako aurrekontua 6,2 milioikoa izanagatik, kostua 8,2 milioikoa izan zen.

Lanak Excavaciones Inzulegui, S.L. enpresak egin zuen.

Gobernu batzordearen erabakia 1995eko abenduaren 15ekoa da eta aurrekontu aldaketa 1995eko abenduaren 19an onartu zen. Hornitzailearen fakturak 1995eko azaroaren 10ekoak (Udalaren erabakia baino lehenagokoak) eta 1995eko abenduaren 21ekoak dira.

Gomendioak:

OROKORRAK:

Baztango Udalak Toki Administrazioaren Foru Legearen 225. artikulua zehazten duen erosketa batzordea eratu behar du. Aipatu batzordeak bere iritzia eman behar du baldin eta erosketen zenbatekoa dirusarreraren ehuneko 5 baino handiagoa baldin bada.

Sinaturiko kontratuen kopia eta beroien laburpena Kontuen Ganbarari bidaltzeko beharra bete behar da.

Kontratuen Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako legeria zorrotzago aplikatu behar da, batez ere zenbateko murrizta duten espedienteetan. Eginiko obren adjudikazioak argitaratu behar dira.

Kreditu izakinari buruzko agiria kontratazioa egin baino lehen aurkeztu behar da.

ZEHATZAK:

Lehiaketen baldintza zehatzen orrian eskaintzak aztertzean erabiliko diren irizpideak sartzea.

Obrak ausarkeriazko beherakadaz adjudikatu baino lehen txosten teknikoak eskatu beharko lirateke adjudikatzailerak eragin ditzakeen arriskuak ongi neurtzeko.

Egin beharreko obra guztietarako adjudikatzailerakiko kontratu idatzia egitea. Kontratuak baldintza ekonomikoak zehaztu behar ditu.

Kontratazio zuzena gutiago erabiltzea lizitatzailerak gehiagoren konkurrentzia bultzatu eta, ahal den neurrian, kompetentzia handitzeko.

Adjudikazio prozesuetan parte hartzen duten kontratista guztiei abalak eskatzea, kontratazio legeriak agintzen duen bezala.

Obra garrantzitsuei jarraipen handiagoa egitea gerta litezkeen zirkunstantzia guztiak ezagutu eta espedienteetan islatzeko. Izan ere, kontratu egileak obren atzerapenei buruzko informazio zehatza behar du kontratuaren aurreikusitako zigorrak aplikatu behar diren ala ez erabakitzeko.

1995eko azaroaren 17ko osoko bilkuraren akordioa betetzeko, Levelling-1, S.L. enpresak bertan behera utzitako kontratuagatik Udalari eragindako kalteak zenbatu behar dira ordaintzeke dauden ziurtagirietatik kobratzeko.

Bitarteko propioez eginiko obren kostu errealari buruzko azterketa ekonomikoa egitea. Horrela, udal errekurtsioak hobeki erabiltzeko, obra horiek kanpoko enpresei kontratatuzeko aukera azter liteke.

VI. 12 Hirigintza eta ondarea


Udalak arau subsidiarioak baditu baina ez dagokien azterketa ekonomiko-finantzieroa. Arauak 1983an onartu ziren eta harrez geroztik aldaketa batzuk egin zaizkie.

Udaleko ordezkariak diotenez, Hirigintzaren Antolaketarako Plan berria egiten hasia da. Plana Lurzoruren Erregimen eta Hiri Antolaketari buruzko legearen testu bilduari, 1992ko ekainaren 26koa, eta Lurralde Antolaketa eta Hirigintzaren legeari egokitu behar zaie.

Udalak ez du lurzoruaren udal ondasuna egina.

Lurzoruaren udal ondarea egiteko beharra gogoratu nahi dugu. Hirigintza eta Lurralde Antolaketarako Foru Legearen arabera, ondarea honako ondasun mota hauek osatuko dute: Hirigintza planak lurzoru urbano edo urbanizagarri programatutzat hartutakoak eta, halaber, zesio (lursailez edo diruz), edozein motatako hirigintza-desjabetze eta eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutakoak, Hirigintza eta Lurralde Antolaketarako Foru Legearen arabera.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12an



Francisco Javier Tuñón San Martín

Lehendakaria